



## IV. ERANSKINA

### 2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA AITAK/AMAK EDO TUTOREAK

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia \_\_\_\_\_ duenak, bere izenean eta \_\_\_\_\_ interesdunaren (adingabearen) aita/ama/tutore gisa,

#### HONAKOIA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Hitzematen dut kirol-erakundearekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziatzearekin eta sentsibilizatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire ardurapean dudan seme-alabaren edo adingabearen osasun-egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirolerakundeko osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeko osasun-arduradunari jakitera emango diot familiako bizikidetzaren unitateko pertsona bat (kirola egiten duen adingabea bera edo beste pertsona bat) COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariak eskatzen badute, erakundeak nirekin edo tutorea den beste pertsona batekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.
- Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariak ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirolerakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko du jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak jardueretan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta, ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dudan seme-alabari edo adingabeari 2020-2021 ikasturteko eskola-kiroleko programan parte hartzeko.

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an

Izenpetua